

# **ISLAK**

## **Mikel Azpiroz**

Mikel Azpirozek album berri bat dakar: *Islak*, hitzaren zentzu bikoitzean, “uharteak” eta “errainuak”. Piano bakarrarekin egindako aurreko bi diskoen bidetik dator lan hau, *Gaua* eta *Zuri* diskoen jarraipen gisa. Azpirozek sortutako bederatzi konposizio biltzen ditu, isats-piano bikain batekin interpretatuak, 1978. urteko Steinway&Sons B ereduko pianoarekin hain zuzen ere. Bederatzi piezetako bostetan Karlos Aranzegi perkusionistak lagundu dio bateriarekin eta darboukarekin.

Azpirozen musika –Ricardo Aldarondo musika kritikariak deskribatu izan duen bezala– hainbat geltokitatik igarotzen da, konpartimentu itxietan gelditu gabe, lengoia bat sortuz non sintetizatzen den ñabarduraz betetako estiloa, notarik sobera ez duten melodia dotoreetan: inpresionismoa, beste lurralde batzuetako printza exotikoak, baita Euskal Herrikoak ere, bluesik izkinakoenak, abangoardiako joera sotilak... Karga espiritual esanguratsua duten piezak dira, entzulea introspekziara eta meditaziora daramatenak, baretasuna eta harmonia eskaintzen diotenak, patxada eta sosegua aldarrikatuz zalapartaren eta zarataren aurrean.

Mikelen obsesioa da soinuaren kalitateak obraren emaitza osoan daukan garrantzia bermatzea, eta horrek eraman du grabazio teknikak ikertu eta hobetzera, berak kudeatu baititu teknika horiek lan honetan. Lortutako emaitza hauxe da: entzuleari interpreteen ondoan eserita balego bezala iristen zaiola obra.

*Islak* Donostian grabatu zen 2020ko urtarrileko hiru egunetan, Mikelen beraren Mamusik estudioan. Izen bereko zigilua 2006an sortu zuen Azpirozek, bere bakarkako lanak nahiz Elkano Browning Cream proiektuarekin burutzen dituenak argitaratzeko. Diskoa dendetan eta plataforma digitaletan dago salgai.

Mikel Azpiroz (Donostia, 1971), sei urte zituela hasi zen pianoa ikasten; Kontserbatorioan egindako musika klasikoko ikasketak laster bideratu ziren jazzaren eta bluesaren esparruetara. Ingeniaritza industrialean lizentziatu arren, beti izan zuen oso argi musikarekiko pasioa. Musikari, konpositore eta ekoizle gisa egin duen ibilbidean berak garatutako proiektuak daude (Elkano Browning Cream) eta baita hainbat bakarleri eta talderekin egindako lanak ere (The Waifs, Duncan Dhu, Travellin´Brothers, Jabier Muguruza, Elena Setien...).

**Diskoaren aurkezpen kontzertua Donostiako Victoria Eugenia Antzokian izango da azaroak 27an, 19:30tan**

Harremanetarako:

[info@mikelazpiroz.com](mailto:info@mikelazpiroz.com)

656 719650

[www.mikelazpiroz.com](http://www.mikelazpiroz.com)